

“Langile autonomoentzako ezohiko laguntzak.”

GALDERA OROKORRAK

1. Zeintzuk dira autonomoentzako laguntzak?
2. Badut 3 egoerarako laguntza eskatzeko aukerarik?
3. Edozein langile autonomo izan al daiteke eskatzailea?
4. Noiz arte egongo da indarrean laguntza hori?
5. Non aurkeztu behar dut dokumentazioa?
6. Non aurkeztu behar ditut zuzentzeko eskatu dizkidaten dokumentuak?
7. Esango zenidake Aginduaren izena eta zer egunetan argitaratu den EHAAn?
8. Non eskura dezaket diru-laguntza eskatzeko behar den dokumentazioa?
9. Eskabidea betetzeko zalantzak sortzen bazaizkit, norbaitek lagunduko al dit?

PRODUKZIO JARDUERARI EUSTEA

1. Zeintzuk dira laguntza horren onuraduna izateko baldintzak?
2. Zein da produkzio-jarduerari eusteko laguntzen zenbatekoa?
3. Zer dokumentazio aurkeztu behar dut laguntza horretarako?
4. Moduluen arabera ordaintzen ditut zergak. Nola justifikatuko dut gutxitzea BEZaren aitortpenean?
5. Nola ordainduko da?

ENPLEGATUEN KONTRATAZIOA

1. Zeintzuk dira laguntza horren onuraduna izateko baldintzak?
2. Zein da gizarte-segurantzako 1. kotizazio-taldea?
3. Zein da enplegatuak kontratatzekeko laguntzen zenbatekoa?
4. Zer dokumentazio aurkeztu behar dut laguntza horretarako?
5. Nola ordainduko da?

LANGILE AUTONOMOAK BIRZIKLATZEA ETA HAIEN LANBIDE KUALIFIKAZIOA ETA ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEA

1. Zeintzuk dira laguntza horren onuraduna izateko baldintzak?
2. Zer motatako ikastaroetan eman behar dut izena laguntza eskuratzeko?
3. Zein da langile autonomoak birziklatzeko eta haien lanbide-kualifikazioa eta enplegagarritasuna hobetzeko laguntzen zenbatekoa?
4. Nola eman behar dut izena Enplegua eta Gizarte Gaietako Sailaren ikastaroetan edo Hobetuzen ikastaroetan?
5. Nola ordainduko da?

I Eranskina

1. Zer bete behar dut “espediente-zenbakiaren” atalean?
2. “Eskatzailearen datuak” ataleko eremu guztiak bete behar ditut?
3. “Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa” atalean zenbateko horrek 2 laguntzen batura izan behar du, produkzio-jarduerari eusteko eta langileak kontratatzekeko laguntza eskatzen badut?

GALDERA OROKORRAK

1. Zeintzuk dira autonomoentzako laguntzak?

Laguntzek 3 motatako egoerak dituzte jomugan:

- 1^a. “Produkzio-jarduerari eusteko laguntzak”
- 2^a. “Enpleguak kontratatzeako laguntzak”
- 3^a. “Langile autonomoak birziklatzeko eta haien lanbide-kualifikazioa eta enplegarritasuna hobetzeko laguntzak”.

2. Badut 3 egoeratarako laguntza eskatzeko aukerarik?

Produkzio-jarduerari eusteko eta enpleguak kontratatzeako laguntzetarako, langile autonomo eskatzaileak jardunean egon behar du, eta, horrez gain, aginduan zehaztutako beste baldintza batzuk bete behar ditu. Aldiz, langile autonomoak birziklatzeko eta haien lanbide-kualifikazioa eta enplegarritasuna hobetzeko laguntzak halaber beren jarduera utzi behar izan duten langileentzat sortu dira.

3. Edozein langile autonomo izan al daiteke eskatzailea?

Honako langile autonomo hauek ezin izango dute kapitulu horretan aurreikusitako laguntzarik jaso:

- Sozietate kooperatiboetako bazkideek
- Lan-sozietateetako bazkideek (SAL eta SLL)

4. Noiz arte egongo da indarrean laguntza hori

Programak 12 hilabeteko indarraldia izango du, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera —orduan hasiko baita indarrean—, hau da, 2009ko abenduaren 19tik aurrera.

5. Non aurkeztu behar dut dokumentazioa?

Interesdunek Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu behar dituzte eskaerak, Gizarte Ekonomiaren, Enpresaren Erantzukizun Sozialaren eta Lan Autonomoaren Zuzendaritzara zuzenduak. Hona hemen ordezkaritza horien helbideak:

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Samaniego kalea, 2
01008 – Vitoria-Gasteiz
ÁLAVA

Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

Kale Nagusia, 85
48011 – Bilbao
BIZKAIA

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

Vitoria-Gasteiz kalea, 3 – 3.a, 2
20018 – Donostia
GIPUZKOA

6. Non aurkeztu behar ditut zuzentzeko eskatu dizkidaten dokumentuak?

Zuzendu beharreko dokumentuak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu behar dira, Gizarte Ekonomiaren, Enpresaren Erantzukizun Sozialaren eta Lan Autonomoaren Zuzendaritzara zuzenduak. Hona hemen ordezkaritza horien helbideak:

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Samaniego kalea, 2
01008 – Vitoria-Gasteiz
ÁLAVA

Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

Kale Nagusia, 85
48011 – Bilbao
BIZKAIA

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

Vitoria-Gasteiz kalea, 3 – 3.a, 2
20018 – Donostia
GIPUZKOA

7. **Esango zenidake Aginduaren izena eta zer egunetan argitaratu den EHAAn?**
2009ko abenduaren 10eko Agindua, 2009ko abenduaren 18an argitaratua.
8. **Non eskura dezaket diru-laguntza eskatzeko behar den dokumentazioa?**
Egailanen Webgunean: www.egailan.es
Lanbideren Webgunean: www.lanbide.net
Eusko Jaurlaritzaren webgunean: www.euskadi.net
9. **Eskabidea betetzeko zalantzak sortzen bazaizkit, norbaitek lagunduko al dit?**
Telefonoz deituta **901 222 901 – 945 160 600** (Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 21:00etara)
Posta elektronikoz: euskadi09@lanbide.net

PRODUKZIO JARDUERARI EUSTEA

1. **Zeintzuk dira laguntza horren onuraduna izateko baldintzak?**
Laguntzen onuradunak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan enpresa-jardueraren bat egiten duten langile autonomo eskatzaileak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:
 - Laguntzak eskatu aurreko 6 hilabeteetan langabezia kapitalizatu ez izana.
 - Besteren konturako langilerik ez edukitzea.
 - 2009ko lehen sei hilekoko fakturazioa gutxienez % 35 gutxitu izana aurreko urteko aldi berdinari dagokionez.
 - Aldi baterako ezintasuna estalita edukitzea.
2. **Zein da produkzio-jarduerari eusteko laguntzen zenbatekoa?**
Diru-laguntzaren zenbatekoa **1.125 €** da langile autonomo bakoitzeko.
3. **Zer dokumentazio aurkeztu behar dut laguntza horretarako?**
 - 1) **Oro har:**
 - Foru Aldundiekiko zerga-betebeharrak eguneratuta edukitzeari buruzko egiaztagiria. Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko ekainaren 19ko Aginduari jarraiki —agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren pentzutan diru-laguntzak eskuratu dituztenek zerga-mailako obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoa da—, ez dute zerga-betebeharrak eguneratuta edukitzea egiaztatu behar izango jasotzaile eta urte bakoitzeko 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez duten diru-laguntzen eskatzaileek.
 - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren edo dagokion erakundearen ziurtagiri eguneratua, gizarte-segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duena.
 - Eskatzailearen zinpeko aitorpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntza publikoak itzultzeko prozedurei nahiz zehapen-prozedurei buruzkoa, betiere prozedura horiek oraindik izapidetze-fasean badaude.
 - Hirugarren interesdunaren datuen altari buruzko fitxa, eskatzaileak eta dagokion bankuak izenpetu eta zigilatua.
 - Eskatzailearen zinpeko aitorpena, zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez dagoela adierazita, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.
 - 2) **Berariaz**, laguntza modalitate horretarako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, eskatzaileek honako dokumentazio hau atxikiko diote eskaerari:

- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, laguntza-eskatzaileak laguntzak eskatu aurreko sei hilabeteetan langabezia kapitalizatu ez duela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, eskatzaileak bere kargura langilerik ez duela eta aldi baterako ezintasuna estalia duela egiaztatzen duena.
- Balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpenak, 2008ko eta 2009ko ekitaldietako aurreneko bi hiruhilekoei dagozkienak, edo bestela zinpeko aitorpena, bertan beren hiru hornitzaile nagusiei denbora-tarte horretan egindako erosketak bilduta.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ordaindu izanaren frogagiriaren kopia konpultsatua, edo, hala badagokio, zerga horretatik salbuetsita dagoela egiaztatzeko agiria; eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, enpresa gizarte-segurantzaren alta emana dagoela egiaztatzen duena.

4. Moduluen arabera ordaintzen ditut zergak. Nola justifikatuko dut gutxitzea BEZaren aitorpenean?

BEZari dagokionez modulu bidezko erregimenean dihardutela-eta onuradunek ezin badute fakturazioa gutxitu izana artikulu horretan adierazi den irizpidearen arabera egiaztatu, adierazitako moduan egiaztatzearen ordez, zinpeko aitorpena aurkeztuko dute. Horren bidez, beren **hiru hornitzaile nagusiei** lehen adierazi dugun denbora-tarte horretan (2008/2009) egindako erosketak bilduta, aurreko urteko aldi berdinean hornitzaile horiei dagokien fakturazioa adierazitako 4. artikuluko c) atalean ezarritako ehunekoa gutxitu izana egiaztatuko dute.

5. Nola ordainduko da?

Emandako diru-laguntza 2 zatitan ordainduko da:

Lehendabizi, diru-laguntza osoaren % 50 ordainduko da, laguntza emateko ebazpena egin ondoren, betiere eskatzaileak esanbidez uko egin ez badio.

Diru-laguntzaren gainerako % 50a laguntzaren xedea egiaztatutakoan ordainduko da, hots, diru-laguntza eman ondorengo sei hilabeteetako gizarte-segurantzako kuoten ordainagiriak aurkeztutakoan.

ENPLEGATUEN KONTRATAZIOA

1. Zeintzuk dira laguntza horren onuraduna izateko baldintzak?

Kapitulu horrek aipatzen dituen laguntzen onuradunak izango dira beren jardura Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten eta besteren konturako langileak kontratatzen dituzten langile autonomo eskatzaileak. Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Diru-laguntzaren xede diren kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izango dira. Lanaldi partzialekoak badira, aplikatzen den hitzarmenaren araberrako lanaldi osoaren erdikoak izango dira gutxienez.
- Kontratuak enplegu-zerbitzu publikoren batean langabe gisa erregistratuta gutxienez hiru hilabete daramatzaten pertsonekin egin beharko dira.
- Aplikatzen den hitzarmenaren araberrako soldatak ordainduko dira.
- Nahitaezkoa izango da eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan onuradunek langilerik kaleratu ez izana.
- Laguntza horietatik kanpo utzi dira banako enpresaburuaren ezkontidea eta odoltasunezko, ezkontza bidezko edo adopzio bidezko bigarren mailara arteko (hori barne) arbaso, ondorengo eta/edo zeharkako ahaideak. Era berean, laguntzetatik kanpo utzi da sozietatea osatzen duten enpresetako edozein bazkidek ahaide horiek kontratatzeko aukera.

2. Zein da gizarte-segurantzako 1. kotizazio-taldea?

Kontratatuak langileen gizarte-segurantzako enpresa-kuotaren % 100, 6 hilabeteko aldiari gehienez. Gizarte-segurantzaren 1. kotizazio-taldeko kontratazioen kasuan, laguntzen zenbatekoa kuota horren % 50 izango da.

3. Zein da enpleguak kontratatzeko laguntzen zenbatekoa?

Ingeniarien eta lizentziadunen taldea da.

4. Zer dokumentazio aurkeztu behar dut laguntza horretarako?

1) Oro har:

- Foru Aldundiekiko zerga-betebeharrak eguneratuta edukitzeari buruzko egiaztagiria. Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko ekainaren 19ko Aginduari jarraiki —agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren pentzutan diru-laguntzak eskuratu dituztenek zerga-mailako obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoa da—, ez dute zerga-betebeharrak eguneratuta edukitzea egiaztatu behar izango jasotzaile eta urte bakoitzeko 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez duten diru-laguntzen eskatzaileek.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren edo dagokion erakundearen ziurtagiri eguneratua, gizarte-segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duena.
- Eskatzailearen zinpeko aitortpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntza publikoak itzultzeko prozedurei nahiz zehapen-prozedurei buruzkoa, betiere prozedura horiek oraindik izapidetze-fasean badaude.
- Hirugarren interesdunaren datuen altari buruzko fitxa, eskatzaileak eta dagokion bankuak izenpetu eta zigilatua.
- Eskatzailearen zinpeko aitortpena, zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez dagoela adierazita, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

2) **Berariaz**, laguntza modalitate horretarako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, eskatzaileek honako dokumentazio hau atxikiko diote eskaerari:

- Diru-laguntzaren xede diren kontratuen kopia konpultsatua.
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren edo Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren ziurtagiria, kontratatutako langileak langabe gisa erregistratuta gutxienez hiru hilabete zeramatzala egiaztatzen duena.
- d) eta e) ataletan eskatzen diren baldintzei dagokienez, zinpeko aitorten bidez egiaztatuko dira; aitorten horietan, adierazitako ataletan bildutako egoeran ez dagoela aditzera emango du eskatzaileak.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ordaindu izanaren frogagiriaren kopia konpultsatua, edo, hala badagokio, zerga horretatik salbuetsita dagoela egiaztatzeko agiria; eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, enpresa gizarte-segurantzaren alta emana dagoela egiaztatzen duena.

5. Nola ordainduko da?

Emandako diru-laguntza honela ordainduko da:

- Lehendabizi, diru-laguntza osoaren % 50 ordainduko da, laguntza emateko ebazpena egin ondoren, betiere eskatzaileak esanbidez uko egin ez badio.
- Diru-laguntzaren gainerako % 50a laguntzaren xedea egiaztatutakoan ordainduko da, hots, diru-laguntza eman ondorengo sei hilabeteetan kontratatutako langileen gizarte-segurantzako kotizazio-buletinak (Tc1 eta Tc2 ereduak) aurkeztutakoan.

LANGILE AUTONOMOAK BIRZIKLATZEA ETA HAIEN LANBIDE KUALIFIKAZIOA ETA ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEA

1. Zeintzuk dira laguntza horren onuraduna izateko baldintzak?

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan errolatuta zeuden langile autonomoak, betiere gizarte-segurantzaren autonomoentzako edozein erregimenetan alta emanda egon ondoren jarduera utzi eta gizarte-segurantzaren nahiz EJZn baja eman badute. Pertsona horiek, era berean, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Enpresa-jarduera eskaera egin baino gutxienez sei hilabete lehenago utzi izana.
- Gizarte-segurantzaren gutxienez segidan 18 hilabetez edo aldizka 36 hilabetez kotizatu izana bost urteko aldian.
- Enpleguko bulego publikoren batean izena emanda egotea.

2. Zer motatako ikastaroetan eman behar dut izena laguntza eskuratzeko?

Enpresa-jarduera utzi behar izan duten autonomoen lanbide-kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-ibilbideetan edo prestakuntza-ekintzen multzo integratuan izena emateko eta bertan parte hartzeko emango da diru-laguntza, betiere ibilbide eta prestakuntza-ekintza horiek Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak diruz lagundutako prestakuntza-ekintza osotik eta Hobetuz Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak kudeatutako prestakuntza-ekintzatik hautatu badira.

Egin beharreko prestakuntza gutxienez honako eremu hauetakoa izango da: **“Enpresa Plana edo Negozio Plana”, “Laneko Arriskuen Prebentzioa” eta “Berdintasuna”**.

Onuradunek aldi berean hainbat ikastaro egin ahal izango dute, edo bestela bata bestearen atzetik.

Onuradun bakoitzari esleitutako prestakuntza-ibilbideak edo prestakuntza-ekintzen multzo integratuak gutxienez **250** orduko iraupena izango du eta ordu horiek **aurrez aurrekoak** izango dira.

3. Zein da langile autonomoak birziklatzeko eta haien lanbide-kualifikazioa eta enplegagarritasuna hobetzeko laguntzen zenbatekoa?

Onuradunek hilean **480 €-ko** laguntza jasoko dute, **gehienez 6 hilabetez**.

4. Nola eman behar dut izena Enplegua eta Gizarte Gaietako Sailaren ikastaroetan edo Hobetuzen ikastaroetan?

Langile autonomoek honako zehaztapen hauen arabera izango dute prestakuntza-eskaintzarako sarbidea:

- Prestakuntza-zentroek eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta Hobetuzek kudeatutako laguntzen onuradunak diren erakundeek, ahal dela, ikastaro bakoitzaren plazen % 15 gordeko dute hurrengo artikulua barnean hartutako autonomoek ikastaro horietan parte har dezaten.
- Ikastaro horietarako sarbidea eta aurretiko izen-ematea Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Orientazio Zerbitzuen sarearen bitartez gauzatuko dira. Horretarako, onuradunek zerbitzu horietara jo beharko dute eta, bertan, dagokion/dagokien ikastaroan/ikastaroetan izena ematea eskatu eta jarduera utzi izana egiaztatu beharko dute, arau horren 12. artikuluan ezarritakoari jarraiki.
- Onuradunak lehen adierazi ditugun prestakuntza-ekintzetako batean edo gehiagotan aurrez izena emanez, gutxienez honako eremu hauetako prestakuntza eta kualifikazioa bideratuko da: **“Enpresa Plana edo Negozio Plana”, “Laneko Arriskuen Prebentzioa” eta “Berdintasuna”**
- Onuradunek aldi berean hainbat ikastaro egin ahal izango dute, edo bestela bata bestearen atzetik.
- Onuradun bakoitzari esleitutako prestakuntza-ibilbideak edo prestakuntza-ekintzen multzo integratuak gutxienez 250 orduko iraupena izango du eta ordu horiek aurrez aurrekoak izango dira.

1) Oro har:

- Foru Aldundiekiko zerga-betebeharrak eguneratuta edukitzeari buruzko egiaztatzea. Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko ekainaren 19ko Aginduari jarraiki —agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren pentzutan diru-laguntzak eskuratu dituztenek zerga-mailako obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruzkoa da—, ez dute zerga-betebeharrak eguneratuta edukitzea egiaztatu behar izango jasotzaile eta urte bakoitzeko 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez duten diru-laguntzen eskatzaileek.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren edo dagokion erakundearen ziurtagiri eguneratua, gizarte-segurantzarekiko betebeharrak egunean dagoela egiaztatzen duena.
- Eskatzailearen zinpeko aitorpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntza publikoak itzultzeko prozedurei nahiz zehapen-prozedurei buruzkoa, betiere prozedura horiek oraindik izapidetze-fasean badaude.
- Hirugarren interesdunaren datuen altari buruzko fitxa, eskatzaileak eta dagokion bankuak izenpetu eta zigilatua.
- Eskatzailearen zinpeko aitorpena, zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez dagoela eta horretarako ezgaitzen duen legeko debekuen eraginpean ez dagoela adierazita, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

2) **Berariaz**, laguntza modalitate horretarako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, eskatzaileek honako dokumentazio hau atxikiko diote eskaerari:

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan baja eman izanaren frogagiriaren kopia konpultsatua.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, eskatzaileak bost urteko aldi gizar-segurantzaren gutxienez segidan 18 hilabetez edo aldizka 36 hilabetez kotizatu duela egiaztatzen duena.
- Laguntza-eskatzailea Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan eta/edo Lanbiden izena emanda dagoela egiaztatzeko agiria.
- Errolda-ziurtagiria, Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion udalerririk egina.

5. **Nola ordainduko da?**

Emandako diru-laguntza Lanbideren orientazio-zerbitzuek prestakuntza-prozesurako aurretiko izen-ematea gauzatu ondoren ordainduko da. Laguntzaren zenbatekoa hilean 480 euro izango da eta gehienez sei hilabetez ordainduko da.

Diru-laguntzak dagokion hilabetea amaitutakoan ordainduko dira, eta hilabete baino aldi txikiagoko ordainketei dagokienez, diru-laguntzaren zenbatekoa dagokion aldiko egun kopuruaren proportzioan kalkulatu da, lehen adierazitako 480 euroko kopurua oinarritzat hartuta.

I Eranskina1. **Zer bete behar dut “espediente-zenbakiaren” atalean?**

Eskatzaileak ez du bete behar espediente-zenbakia izeneko laukia.

2. **“Eskatzailearen datuak” ataleko eremu guztiak bete behar ditut?**

Bai, garrantzizkoa da “Eskatzailearen datuak” eremuko atal guztiak betetzea. Telefonoari, faxari eta helbide elektronikoari dagokienez, datu horiek eskuratzen baditugu zurekin harremanetan jarri ahal izango gara zure eskaerari eman zaion espediente-zenbakia jakinarazteko; izan ere, kontsultarik egin behar baduzu, zenbaki hori beharko duzu.

3. “Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa” atalean zenbateko horrek 2 laguntzen batura izan behar du, produkzio-jarduerari eusteko eta langileak kontratatzeke laguntza eskatzen badut?
Eskaera berean, bi laguntza horiek ez dira bateragarriak; izan ere, bata betetzeko baldintzek bestea ez betetzea dakarte.